**2019KO EKAINAREN 15AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 15 DE JUNIO DE 2019**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.
**ARETOA**: Batzar Aretoa.
**EGUNA**: Hamabosta.
**HILABETEA**: Ekaina .
**URTEA**: Bi mila eta hemeretzi.
**HASIERAKO ORDUA**: Goizeko hamarrak.
**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa.
**DEIALDIA**: Lehena.

**LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain
**LOCAL**: Salón de Plenos
**DIA**: Quince
**MES**: Junio.
**AÑO**: Dos mil diecinueve.
**HORA DE COMIENZO**: Diez horas.
**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.
**CONVOCATORIA**: Primera.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17)

**NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17)

**UDALBURUA / PRESIDENTE**:
AITOR ALDASORO ITURBE

**BILDUAK / REUNIDOS**:
AITOR ALDASORO ITURBE

Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV)

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA

Euskal Herria Bildu (EH BILDU)

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- MARIA YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- MADDI IMAZ RUIZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE

Partido Socialista de Euskadi- Euskadiko Ezkerra (PSOE) PSE-EE (PSOE)

- EVA ALVAREZ ATANES

- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**ETORRI GABEA / AUSENTE**:

Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV):

- AINARA AYESTARAN ALDASORO

**IDAZKARIA / SECRETARIA**:
ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzailea ere, egon da.

Idazkariak ondorengo gai-zerrenda duen bilerari hasiera eman dio:

**1.-** Adineko Mahaia osatzea eta kredentzialak frogatzea.

**2.-** Aparteko kutxako kontaketari eta udal inbentarioari buru Idazkariak emandako diligentziaren berri ematea.

**3.-** Zinegotzi Hautatuen karguak hartzea eta Udala osatzea.

**4.-** Alkatea hautatzea eta kargua hartzea.

Idazkari andreak:

“Pasa den maiatzaren 26an hamaikagarren hauteskundeak izan dira 1979tik eta horiekin 2015-2019 legealdi amaiera eman zaio. Orain berriro “hasi beharrean gaude”. Horretarako bildu gara hemen. Hain zuzen ere, legealdi berri bati hasiera emateko, hau da, 2019-2023koari. Horretarako beharrezkoa da Korporazio berria osatzea eta Alkatea izendatzea.

“Berritze” prozesu honetan hiru fase daudela esan genezake: **likidazioa**, **eraketa** eta **antolaketa** (baina hau gaurkoa burutu ondoren).

Legealdiaren **LIKIDAZIOARI** dagokionean esan, lau urteetako mandatua ixteko hainbat ekintza egin behar direla, hala nola: aurreko aktak

A la reunión también ha asistido la interventora LURDES ALEGRIA LASA.

La Secretaria ha dado comienzo a la reunión con el siguiente orden del día:

1.- Constitución Mesa de Edad y comprobación de credenciales.

2.- Dación de cuenta de la Diligencia de la Secretaria de Arqueo Extraordinario e Inventario Municipal.

3.- Toma de posesión de Concejales electos y constitución del Ayuntamiento.

4.- Elección del Alcalde y toma de posesión.

La Sra. Secretaria:

“El pasado 26 de mayo se han celebrado las undécimas elecciones municipales desde 1979 y con ellas se ha dado fin a la legislatura de 2015-2019. Ahora toca “volver a empezar”. Es para eso para lo que nos hemos reunido aquí, esto es, para dar inicio a una nueva legislatura, la del 2019-2023. Para ello es preciso constituir la nueva Corporación y nombrar Alcalde.

Este proceso de renovación se articula en un triple trámite: **liquidación**, **constitución** y **organización**, que vendrá a partir del día de hoy.

En lo que respecta a la **LIQUIDACIÓN**, la finalización del mandato de los cuatro años anteriores, conlleva una serie de actuaciones, a

onartu, inbentarioaren egoera konprobatu, arkeoa, behin behineko pertsonalari baja eman eta kargua uzten duten zinegotziek entregatu beharreko ondasun eta interesen aitorpenak:

- Aurreko aktak, ekainaren 12an onartu ziren.
- Inbentarioa eguneratzea, Plenoak onartu zuen pasa den maiatzaren 23an eta gaurko datarekin eguneratuta dago. Zinegotzi berrien esku aurkitzen da 5 eguneko epean kargua hartzen dutenetik kontatzen hasita, kontsultatu nahi izanez gero.
- Arkeoa edota Udalak udal-gordailuan edota banketxeetan dituenak, bai baloreetan eta baita ere eskudirutan, gaurko eguneko datarekin eginda.
- Behin behineko pertsonalari baja eman zaio.
- Kargua utzi duten zinegotziek ondasun eta interesen aitorpenak aurkeztu dituzte.

Lan horiek guztiak eginda, Korporazioa **OSATZEKO** moduan gaude:

Korporazioa 17 kideek osatzen dutenez, ondo bidez osatzeko behar den quoruma gehiengo osoarena da, hau da: 9

saber: aprobación de actas anteriores, comprobación del inventario, arqueo y entrega por parte de los miembros cesantes de la declaración de intereses, actividades y bienes:

- Las actas anteriores se han aprobado con fecha 12 de junio.
- La rectificación del inventario ha sido aprobada por el Ayuntamiento Pleno el 23 de mayo de 2019 y actualizada a día de hoy. Se encuentra a disposición de los nuevos concejales por un plazo de 5 días tras la toma de posesión, para poder consultarlo.
- El arqueo, esto es, justificantes de las existencias en metálico o valores propios de la Corporación, depositados en la Caja Municipal o en entidades financieras, se ha efectuado a día de hoy.
- Cese del personal eventual.
- Los concejales cesantes han presentado la declaración de intereses, actividades y bienes.

Materializadas todas esas actuaciones, procede efectuar la **CONSTITUCIÓN** de la Corporación.

Dado que la Corporación se compone de 17 miembros, el quórum para la válida constitución del Ayuntamiento es el de mayoría absoluta, esto es: 9

Horretarako lehendabizi, ADINEKO MAHAIA osatu behar da. Mahai hau adinez nagusiena eta gazteena diren zinegotziek eta Idazkariak (kasu honetan Udalarenak) osatzen dute. Adin nagusikoa den zinegotziak mahaiaren lehendakari lanak egingo ditu. Kasu honetan betebehar horiek, Xabier Matarranz Rico eta Amets Arrospide Zubeldiari dagokie. Hurbildu, mesedez.

Lehendakari jaunak:

- Adineko Mahaia eratuta geratzen da bileran daudelako osatu behar dutenek.

- Idazkariak egiaztatu ditu zinegotziek

Para ello, lo primero que hay que hacer es constituir la MESA DE EDAD, por los concejales electos de mayor edad (que efectúa las veces de Presidente de la misma), menor edad y Secretaria, actuando como tal la de la Corporación. En este caso corresponde cumplir esas obligaciones a Xabier Matarranz Rico y Amets Arrospide Zubeldia, por lo que les pido se aproximen a la mesa.

Sr. Presidente:

- Se declara constituida la Mesa de Edad por estar presentes en la sesión las personas a quienes corresponde formarla.

- Por la Secretaria se ha comprobado que

aurkeztutako kredentzialak Lurraldeko Hauteskunde Batzordeak emandako hautatutako aldarrikatzen aktarekin bat datozela.

- Aldi berean esan, hautatutako zinegotziek Idazkaritzan aurkeztu dituztela ondasun eta interesen aitorpenak. Izan ere hori egin gabe ezinezkoa da Korporazioaren kide izatea.

- Hauek guztiak burutu ondoren, behar diren pausoak ematea dagokio Korporazioa osatzeko, zin-egite formula baieztatuz.

las credenciales presentadas coinciden con el acta de proclamación de electos expedida por la Junta Electoral de Zona.

- Decir también que los concejales electos han presentado en Secretaría la declaración de intereses, actividades y bienes, sin lo cual no podrían tomar parte en la constitución de la Corporación.

- Una vez cumplimentadas todas estas obligaciones, procede realizar las actuaciones necesarias para constituir la nueva Corporación, con la fórmula de juramento o promesa (según art. 108 LOREG).

<u>Idazkari andreak</u>:

- Korporazioa formalki eratu ahal izateko, karguaren jabetzea hartzea ezinbestekoa da, apirilaren 5eko 707/79 Errege Dekretuak aurreikusitako zin-egite formula baieztatuz.

- Lehenik eta behin, karguaren jabetza Adineko Mahaikoek hartuko dute.

- Ondorengo zin-egite formula irakurri zaio Xabier Matarranz Rico jaunari:

  "*Zin egiten al duzu zinegotzi karguaren obligazioak finko beteko dituzula erregeari leial izanez eta Konstituzioa Estatuko oinarrizko arau legez betez eta bete-araziz*?"

<u>Sra. Secretaria</u>:

- Para que formalmente se pueda dar por constituida la Corporación es preciso tomar posesión del cargo, ratificando la fórmula del juramento prevista en el Real Decreto 707/79, de 5 de abril.

- En primer lugar tomarán posesión los miembros de la Mesa de edad.

- A continuación se le leído la formula de juramento al Sr. Xabier Matarranz Rico:

  *"¿Jurais o prometeis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal con lealtad al rey y guardar la constitución, como norma fundamental del estado?"*

Xabier Matarranz Rico jaunak: "*Bai, legeak hala behartuta zin egiten dut*."

El Sr. Xabier Matarranz Rico: *"Por imperativo legal, si juro."*

Idazkariak udalaren armarria duen "*pin-a*" jarri dio Xabier Matarranz Rico jaunari.

La Sra. Secretaria ha puesto el *pin* con el escudo del Ayuntamiento a Xabier Matarranz Rico.

Lehen aipatutako zin-egite formula adinez nagusiena den zinegotziak irakurri dio Amets Arrospide Zubeldia andreari eta erantzun du esanez: "*Bai, legeak hala behartuta zin egiten dut*."

El mayor de la Mesa de Edad ha leído la anteriormente citada formula de juramento a Amets Arrospide Zubeldia, quien ha respondido lo siguiente: *"Por imperativo legal, si juro."*

Adineko Mahaiaren Lehendakariak, udalaren

El Presidente de la Mesa de Edad le ha puesto el

armarria duen “*pin-a*” jarri dio Amets Arrospide Zubeldia andreari.

pin con el escudo del Ayuntamiento a la Sra. Amets Arrospide Zubeldia.

- Deituko diet hautatuak izan diren beste zinegotziei mahaiaren inguruan esertzeko eta zin-egite formula baieztatzeko.

- Iré llamando al resto de concejales electos, para que toméis asiento alrededor de la mesa y ratifiquéis la fórmula del juramento o promesa.

Banan bana deitu zaie zinegotzi hautatuei eta Ainara Ayestaran Aldasoro anderea izan ezik denek agertu dira batzarraldira.

Se ha llamado uno a uno a los concejales electos y excepto Ainara Ayestaran Aldasoro todos han acudido a la sesión plenaria.

Lehendakari jaunak:

El Sr. Presidente:

- Deitu eta hurbildu ahala zinegotzi hautatuei irakurri zaie zinegite-formula eta erantzunak ondorengoak izan dira:

  Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) eta Euskal Herria Bildu (EH BILDU) talde politikoetako zinegotziek: “*Bai, legeak hala behartuta zin egiten dut*.”

  Partido Socialista de Euskadi- Euskadiko Ezkerra (PSOE) PSE-EE (PSOE) talde politikoaren zinegotziak: “*Si prometo*”.

  Zin-egite formula baieztatu ahala Lehendakariak udalaren armarria duen “*pin-a*” jarri die.

- El presidente lee la fórmula de juramento o promesa y las respuestas de los concejales han sido las siguientes:

  Los concejales de los grupos políticos Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco (EAJ-PNV) y Euskal Herria Bildu (EH BILDU): *“Por imperativo legal, si juro.”*

  Los concejales del grupo político Partido Socialista de Euskadi- Euskadiko Ezkerra (PSOE) PSE-EE (PSOE): *“Si prometo*”

  Tras ratificar la fórmula de juramento o promesa el Predidente les ha puesto el *pin* con el escudo del Ayuntamiento.

- Korporazioa osatzen duten 17 zinegotzietatik, 16 bertaratu dira eta karguaren jabetza hartu dute. Horren ondorioz, Korporazioa formalki osatuta geratu da.

- De los 17 concejales que componen la Corporación, han concurrido 16, los cuales han tomado posesión del cargo. En consecuencia, queda formalmente constituida la Corporación.

- 

Idazkari andreak:

La Sra. Secretaria:

- Amaitzeko, Alkatea hautatu eta izendatu beharra dago.

- Kontrakorik ez bada esaten bozketa sistema urnaren bidez egiten den bozketa sekretua izango da.

- Finalmente, procede elegir y nombrar al Alcalde.

- Si no existe opinión contraria, el sistema de votación va a ser el de votación secreta mediante urna.

Lehendakari jaunak:

El Sr. Presidente:

- Bozketa sistema zehaztu ondoren, hurrengo pausoa Alkatea hautatzeko izangaiak aurkeztea da. Izangaiak, zerrenda buruak izan daitezke, hau da: AITOR ALDASORO ITURBE, NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL eta EVA ALVAREZ ATANES. Hautesleak: zinegotziak.

- Gertatu daiteke, izangairen batek uko egitea. Horrela da?

Inork ez dio uko egingo izangaia izateari.

- Horren ondorioz, ondorengoak izango dira izangaiak: AITOR ALDASORO ITURBE, NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL eta EVA ALVAREZ ATANES

- Zinegotzi bakoitzari papeleta bat emango zaio, izangaiaren ondoan X jartzeko.

Udaltzain-buruak urna gerturatzen die zinegotziei eta hauek papeleta urnan sartu dute

Idazkari andreak:

- Norbaitek gehiengo osoa lortzen badu, hau da, 9 boto, Alkatea aldarrikatuko da. Bestela, Alkatea izango da boto gehien lortu duen zerrendaren burua.

Bozketa amaitu ondoren, Lehendakari jaunak, urna ireki du eta iragarri egiten da papeleta bakoitzeko edukia. Botoen kontaketa egin ondoren emaitza ondorengoa da:

Botoak guztira: 16

AITOR ALDASORO ITURBE JAUNAK: 9

NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL: 5

EVA ALVAREZ ATANES: 2

Idazkari andreak:

- Determinado el sistema de votación, el siguiente paso es el de la presentación de candidaturas a la elección de Alcalde. Pueden ser candidatos los cabezas de lista, esto es, AITOR ALDASORO ITURBE, NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL y EVA ALVAREZ ATANES. Electores, los concejales.

- Puede suceder que algún candidato renuncie a su candidatura. ¿Es así?.

Ningún candidato ha renunciado a su candidatura.

- En consecuencia, serán candidatos a Alcalde las siguientes personas: AITOR ALDASORO ITURBE, NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL y EVA ALVAREZ ATANES

- A cada concejal se le facilita una papeleta y se deberá poner una X junto al candidato que se desee.

El Jefe de la Policía municipal ha acercado la urna a los concejales quienes han introducido la papeleta en la urna.

Secretaria:

- Si algún candidato obtiene la mayoría absoluta, es decir, 9 votos, será proclamado Alcalde. En caso contrario será el Alcalde el cabeza de lista más votada.

Tras finalizar la votación el Sr. Presidente ha abierto la urna y ha anunciado el contenido de cada papeleta. Tras el recuento el resultado es el siguiente:

Votos en total: 16

EL SEÑOR AITOR ALDASORO ITURBE: 9

LA SRA. NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL: 5

LA SRA. EVA ALVAREZ ATANES: 2

La Sra. Secretaria

- Zinegotziek bezalaxe, Alkate izendatua izan denak ere karguaren jabetza hartu du zinegite-formula baieztatuz.

Lehendakari jaunak zinegite-formula irakurri dio izendatutakoari eta ondorengoa erantzun du: "*Bai, legeak hala behartuta zin egiten dut*."

Beraz, AITOR ALDASORO ITURBE jauna Alkate aldarrikatu da, 2019-2023 legealdirako.

Adinez nagusiena den zinegotziak Alkateari makila entregatu dio besarkada bat emanez. Txaloak….

Adineko mahaikoek erretiratu egin dira eta Alkateak hartzu du bileraren presidentzia.

Alkate jaunak, hitz egiteko txanda eman die beste partidu politikoen ordezkariei eta Euskal Herria Bilduko (EH BILDU), Nerea Manzisidor Mendizabal andereak hitza hartu eta ondorengoa esan du: "*Gaurko egun berezi honetan, gure lanerako prestutasuna berretsi nahiko genuke. Ilusioz eta arduraz hartzen dugu konpromiso hau EH BILDUko kideok. Herritarrak eta beraien beharrei erantzuna emango dizkien proposamenak luzatuko ditugu legealdi honetan, horrela proposamenezko oposizio eraikitzaile bat burutuz eta bereziki politika sozialari garrantzia emanez. Osatu den udal berri honi, herritarren parte-hartzea bultzatzeko proposamen sendoa eskatzen diogu eta bide batez aprobetxatu nahiko genuke Euskal Herriak bizi izan duen gatazka egoeraren ondorioz, gurekin ez dauden herritarrak gogora ekartzeko eta eskerrak emateko, bide batez, EH BILDUko proiektua babestu duzuen herritarroi. Eskerrik asko*!. Txaloak…..

Jarraian Alkate jaunak ondorengo bertsoak bota ditu:

*"Berriro jaso degu*
*herritarren giltza*
*pasa den maiatzean*
*bozketan zen mintza*
*gu 17 gatoz*

- Al igual que los concejales, también el Alcalde que ha sido designado como tal debe tomar posesión del cargo prestando juramento.

La Sra. Secretaria ha leído la fórmula de juramento y el nombrado a respondido lo siguiente: "*Por imperativo legal, si juro."*

Por lo tanto, AITOR ALDASORO ITURBE queda proclamado como Alcalde para el mandato 2019-2023.

El concejal de mayor edad ha entregado al Alcalde "la makila" junto con un abrazo. Aplausos…

La Mesa de Edad abandona la mesa presidencial y el nuevo Alcalde ocupa la presidencia de la sesión.

El Sr. Alcalde ha cedido el uso de la palabra a los representantes de los otros partidos políticos y Nerea Manzisidor Mendizabal de Euskal Herria Bildu (EH BILDU) ha tomado la palabra: "Este día tan especial nos gustaría ratificar nuestra disposición al trabajo. Los miembros de EH BILDU adoptamos este compromiso con ilusión y responsabilidad. Esta legislatura efectuaremos proposiciones que respondan a las necesidades de los ciudadanos, realizando de esta manera una oposición constructiva y dando prioridad a las políticas sociales. A este nuevo Ayuntamiento que se acaba de constituir le pedimos que apueste seriamente por fomentar la participación ciudadana y al mismo tiempo quisiéramos aprovechar para traer el recuerdo a los beasaindarras que hoy no pueden estar con nosotros debido al conflicto que ha vivido Euskal Herria. Y al mismo tiempo agradecer a los ciudadanos que habéis apoyado el proyecto de EH BILDU. ¡Gracias! Aplausos.

A continuación el Sr. Alcalde ha cantado los siguientes bertsos:

*hori da baldintza*
*guztiok nahi genduke*
*herria zerbitza*
*orain bete dezagun*
*emandako hitza*

*17ak gaude*
*gu Udal paletan*
*guztiak banatuta*
*hiru koloretan*
*batzuk ernaldu gabe*
*besteak loretan*
*koadro bat egin nahian*
*lau urte hauetan*
*herritarren mesede*
*eta ohoretan”*

Txaloak…..

Amaitzeko, Alkateak proposatu dio Korporazio berriari argazki bat ateratzea eta bilerari amaiera eman dio goizeko hamarrak eta erdietan eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut

Para finalizar, El Sr. Alcalde ha propuesto a la nueva corporación hacerse una fotografía y ha dado por finalizada la sesión a la diez horas y treinta minutos, de lo cual como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta.